

Euskarazko literatura tailer berria Hondarribian

Liburutegiaren ekimen arrakastatsuak bihar irekiko du aurtengo izen-ematea

Hondarribia. Hondarribiko liburutegian egiten diren literatura tailerrek aurten, lehen aldiz, euskarazko taldea izango dute.

Hamabostean behin egiten diren sesioetan, Mari Trekuren Mattin, ene gizona eta Salvador Zapirainen Txantxangorria irakurri eta landuko dira euskarazko taldearen sesioetan, lehen hiru hilabete honetan, abendura arte. Gaztelerazko tailerraren bi taldeek, aldiz, Mohamed Choukriren El pan desnudo, Stephan Zweigen Una partida de ajedrez eta Vladimir Nabokoven La Defensa landuko dituzte Zuloaga Etxean 15.30etatik 17.00tara egiten diren jardunaldietan.

Tailer hauek, aurten ere, Maite Gonzalez Esnalek zuzenduko ditu eta ikus-entzunezko materialak erabiliko dira irakurritakoei buruz gogoeta egiteko, besteak beste.

Esnalek, ostiralean egin zen aurkezpenean, "Udalak ekimen honi eman dion babesa eta liburutegiko langileen laguntza" eskertu zituen.

Tailerrak Hondarribiko zein eskualdeko edonorentzat daude irekita eta doan ematen dira. Irakurtzen diren liburuak ere Udalak ematen ditu. Izen-ematea bihar bertan irekiko da eta larunbatera arte egin ahal izango da, Udal liburutegian, 9.00tik 14.00ra, 943 111285 telefono zenbakira deituta edo liburutegia@hondarribia.org helbidera idatziaz. >x.s.